

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Bezeroei gure proiektua azaltzeko eta gure proiektuan parte hartzera animatzeko, bilera bat egiteko asmoa dugu, oraindik ez dugu zehaztu noiz eta non izango den, baina zehazten dugunean gure bezero izan daitekeen jendea ohartzeko herrian zehar kartelak itsatsiko ditugu. Herriko aldizkarian ere jarriko dugu informazioa eta aldizkariaren edizio bakoitzean gure proiektuari buruzko informazioa jasoko du jendeak. Ahoz aho ere herrian asko zabal daiteke eta erosketa, entrega eta salmenta ondorengo zerbitzu on batekin, herriko bezeroak mantendu eta inguruko herrietako bezeroen hazkundea suposatu dezake.

